



4 LANDABERRI

Landaberriren 50 urteak ospatzeko ekintza ugari

Mende erdi bete da Landaberriri ikastolak bere atea ireki zituenetik. Urtemuga berezi hori ospatzeko aldera, ekintzaz jositako egitaraua prestatu du, gaurtik hasi eta urriaren 1a arte. Hitzaldiak, erakusketa, haurrentzako jokoak, kontzertuak, bertsoak, antzerkiak, olinpiadak... Ez da ezer falta. Ikastolako kideek eskerrak eman dizkiete urteotan guztietan lanean ibili diren kide guztiei, eta herritarrak gonbidatu dituzte ospakizun ekintzetan parte hartzera.

5 IRAKURLE TXOKOA

Urrian ekingo dio ikasturte berriari Irakurle Txokoak

Urriaren 18an ekingo dio ikasturte berriari Irakurle Txokoak. Gidari lanetara Uxue Alberdi itzuliko da, amatasun baja hartu eta gero. Talde horretako kideek jakinarazi dutenez, zehaztuta daukate dagoeneko aurtengo irakurgai zerranda: Lehenengo saioan, Ramon Saizarbitoria- ren 'Lili eta biok' eleberria izango dute hizpide. Taldearen hitzordua aurreko urteetako bera izango da. Hilabete bakoitzeko hirugarren asteartean elkartzeko dira, 18:30ean.



Ostiral eguerdian aurkeztu zuten aurtengo Stock azoka Udaleko eta Aterpeko ordezkarien zein herriko hainbat merkatarik.

Stock Azoka ostiralean

Aterpeak beste urte batez antolatu du herriko komertzioak dinamizatzeko

Aterpeak Udalaren laguntzarekin, Stock Azokaren beste edizio bat prestatu du ostiralerako. Horretan 10 komertzioi parte hartuko dute. Herritarrak azokan parte hartzera animatzen dituzte.

Aterpeak Stock azokaren edizio berri bat egingo du ostiralean. Aurkezpenean Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak azaldu moduan, "gogotsu ekiten diogu ikasturte berriari". Ekintza ezberdinak aurrerikusten dituzte Gabonak bitartean eta espero dute herritarren babesa izatea guztietan.

Gabonak bitarteko lehenengo ekimena izango da Stock azoka hau.

"Argi utzi behar da azoka honetan parte hartzen duten komertzioen helburua udazkena eta negu denboraldi berriari lekua egitea dela eta

kalera aterako dituztela aurreko denboraldiko produktuak. Stocka aurreko denboraldian saldu ez den produktuek osatuko dute".

Izan ere, komertzioek, ikasturte berriarekin batera, produktu berriak ekartzen dituzte "eskaintza berritzeko", horregatik beharrezkoa izaten zaie saldu ez diren produktu horiei irteera ematea.

Hamar dendeke parte hartuko dute aurtengo azokan; Merceria Aritza, Bazar Abreu, Alba Moda, Merceria Olmi, Urruzola mertzeria, Iturbe, Complementos Alda, Kattagorri Jolas, Donna Bou-

tique eta Ola enmarcaciones.

Hauek guztiak ostiralean euren produktuak denden aurrera aterako dituzte herritarrek errazago ikus ditzaten. Ramon Ormazabalen hitzetan aukera onak izango dira.

Ekintza gehiago

Gabonak bitarte, Aterpeak Bezeroaren hamabostaldia, Pintxoaren ibilbidea eta Gabonetako kanpaina abian jarriko ditu. "Pintxoaren ibilbideak izugarriko arrakasta izan du aurreko edizioetan eta hala jarraitzea espero dugu. Oso harrera ona izan duen ekintza izan da".

Bestalde, udal ordezkariak ere izan ziren aurkezpenean eta Ormazabalek eskerrak eman nahi izan zizkien, herriko komertzio eta tabernei

ematen zaion babesagatik. Horren harira, Aterpeko lehendakaria oso pozik azaldu zen berriki sinatutako hitzarmenarekin.

"Azken urteetan egin bezala, sinatu berri dugu elkarlanerako hitzarmena udalarekin, eta horri esker, herriko komertzio eta tabernak dinamizatzen jarraituko dugu ekintza ezberdinak burutuz".

Hitzarmenak beste balio bat ere badu merkatarik eta ostalarien elkartearantz, izan ere, horri esker beste erakundeetan diru laguntza eskaerak egin ahal izango dituzte herrian hainbat ekimen egiteko.

Horrela izanda, Stock azokak eskainiko duena ikustera gonbidatu zituzten herritarrak: "Ziur gustuko gauzak aurkituko dituztela".

ERAIKI
EUSKADI
MIRA AL
FUTURO



HAUTESKUNDEAK

Alderdiak herritarrekin

Hauteskunderi begira, jendartean ibili ziren.

Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak aukeratuko dituzte herritarrek, hilaren 25ean. Hori aitzakiaz hartuta, herriko zenbait alderdi-politikoetako kideak, kalera atera ziren ostiral zein larunbatean, herritarrekin hitz egin eta informazioa elkarbanatzera. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, aurreikusita zeuden ekintzak moldatu eta Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibili ziren.

Hauteskunde eguna gerturatzen ari da eta alderdiek martxan dituzten hauteskunde kanpainak, herriko kaleak hartu zituzten ostiralean eta larunbatean.

PSE-EEko kideak, ostiralean, karpa informatiboa jarri zuten Jaizkibel plazan. Mahaira hurbiltzen zirenei goxokiak eta larrosak ere banatzen zizkieten.

EH Bildu eta Elkarrekin Podemosko kideak berriz, larunbatean ikusi ahal izan genituen.

EH Bilduko kideek ipar martxa egiteko proposamena zuten, baina eguraldi txarra

tarteko, bertan behera uztea erabaki bazuten ere, ekintza moldatu eta Lasarte-Oriako kaxkoan barrena ibili ziren. Herritarrekin hizketan aritu ziren goizean zehar, eta euren kezka zein proposamenak jaso eta informazio elkarbanatu zuten.

Arratsaldean, berriz, Bilboko Miribilla - Bilbo Arena kirol gunean izan zen ekitaldira hurbildu ziren alderdiko kideak.

Kale Nagusian berriz, Elkarrekin Podemos alderdiko kideek mahai informatiboa jarri zuten. Hauek ere, herritarrengana gerturatu eta informazioa eskaini zieten.

Eguerdi aldera, globoak eta goxokiak banatu zizkieten karpara gerturatzen ziren alderdikideei.

Hainbat eta hainbat izan ziren alderdien programak ezagutzera hurbildu ziren Lasarte-Oriatarrak

Asteko hitzorduak

Hauteskunde kanpainako azken astea dute alderdiek honakoa. Azken txanpa honetan zalantzatsu dauden herritarrei haien aldeko botoa ematera gonbidatuko dituzte. Horretarako kalera aterako dira alderdiak.

EHBilduk ekitaldia antolatu du Okendo plazan.

18:30etatik aurrera, pin-txoak eta musika izango dira eta 19:00etan, Larraitx Ugarte eta Ander Rodriguez Gipuzkoako zerrendako kideek solasaldia egingo dute.

Bestalde, asteazkenean, azokan izango dira hainbat alderdi, hala nola, PP.



EH Bilduko kideak, ipar-martxa ibildierako zuten geldiuneetako batean.



Elkarrekin Ahal Duguk, Kale Nagusian jarri zuen karpa informatiboa.

KZgunean ikastaro eskaintza zabala

Lasarte-Oriako KZguneak teknologia berrietan, sare sozialetan eta ordenagailuko hainbat programetan trebatu nahi duten herritarrei ikastaro eskaintza zabala aurkezten dio hilabetero.

Dagoeneko iraileko ikastaroak martxan daude, baina hilabete bukaeran, irailaren 30ean, bi ikastaro jarriko ditu martxan. Bata irudiekin lotua dago, 'Kizoa: Collageak sortu eta partekatu' eta bestea sare sozialen arlokoa da, 'Skype: beste munduko edozein lekutara doan deitu'.

Honetaz gain, urriko eskaintzaren berri ere eman dute KZguneako arduradunek.

Ordenagailu edo interneten lehen pausoak ematen

dituztenentzat bi ikastaro izango dira.

'PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu' urriaren 3an hasita eta 'Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi' urriaren 6tik aurrera.

Photoshop alde batera utzi eta irudiak programa libreekin editatzen ikasi nahi dutenek ere badute aukera, 'Argazkiak moldatu GIMPEkin' ikastaroan. Urriaren 28an izango da lehen saioa.

Sare Sozialekin lotuta, 'Facebook' sarea ezagutzeko ikastaroa izango da eta irailan eskaintako 'Skype: Munduko edozein tokitara doan deitu' ikastaroa errepikatuko da. 'Facebook' ikastaroa



KZgunean maila ezberdinetako ikastaroak eskaintzen dituzte.

KZGUNEAK

urriaren 24an hasiko da; Skype ikastaroa berriz, azaroaren 28an izango da.

Smartphone eta tabletek ere bere tartea dute KZgune-ko ikastaroetan eta horregatik, urriaren 3an hasita

'Smartphone eta Tabletek. Lortu zure Android Gailuaren etekin handiena' ikastaroa aurreikusten dute.


Software libreekin lan egiten ikasi nahi duenak ere badu aukera 'LibreOffice

Writer: Testu dokumentuak sortu aditu batek bezala' edo 'LibreOffice Calc: Zure kalkulorria sortu' ikastaroerik esker.

Ikastaro guztiak, 'Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasi' izan ezik, gatzeleraz izango dira.

Izen-ematea

Ikastaro hauetan izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko KZguneak Gaztelekuan duen bulegora hurbildu behar dira interesatuak astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, 943 023 660 telefono zenbakira deitu edo tutor.lasarte@kzgunea.net helbide elektronikora mezu bat bidali dezakete.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

TRIATLOIA

'Lasarte', bihotz eta soinean

Hiru hamarkada daramatza Andaluzian Marian Lopez herritarrak

Lasarte-Orian jaio eta hezi zen Marian Lopez, 16 urterekin Almeriara bizitzera joan zen arte. Duela lau urte triatloiak egiten hasi zen; urtetik urtera kirolari bezala garatzen eta hobetzen ari da. Badaramatza hiru hamarkada Andaluzia aldean, baina oso presente darama gure herria. Jokatzan dituen proba guztietan, 'Lasarte' eramaten du triatloiko buzoan.

IÑIGO GONZALEZ



Marian Lopez triatleta (ezkerrean), 'Lasarte' soinean daramala.

Andaluziara etorri nintzenetik oso ongi zaindu naute, eta gustura nago, baina nire herria, nire herria da", nabarmentzen du Marian Lopez triatletak. Lasarte-Orian jaio eta hezi zen, eta 16 urterekin Almeriara joan zen bizitzera. Dena den, kontatzen du urtean behin gutxienez bueltatzen dela herrira, Gabonak familiarekin igarotzera. Marianen ahizpa herrian bizi da.

Marian beti egon da kirolari lotuta. Txikitik, saskibaloian aritu zen, Michelin taldean. Handik urte batzuetara, jada Almeriara joan eta gero, squashean hasi zen jokatzan, ukalondoko lesio

bat eduki arte. Orduan hasi zen murgiltzen triatloia munduan, duela lau urte. Gaur-gaurkoz diziplina hori egiten jarraitzen du, sasoi betean. Almeriako Club Ego Runin taldean aritzen da.

'Lasarte', bihotz eta soinean

Talde horretan aritzen diren triatletek euren abizena daramate buzoan. Denek, Mariak ezik: hark, gure herriaren omenez, 'Lasarte' izena darama soinean.

"Ilusio asko egiten dit 'Aupa Lasarte!' entzuteak, konpetitu bitartean; nire sustriak han ditudala argi dau-

kat, eta asko gogoratzen naiz herriarekin", zehazten du.

Iragan astean Triatloi Kross modalitateko Andaluziako txapelketa irabazi zuen, taldeka, 45-49 urte bitartekoen adin-tartean. "Nire helburua ez dira emaitzak, ez dut saldu nahi eliteko triatleta naizenik, ez baita egia; kirola egitea dut gustuko, entrenzetik leher eginda iriste hori, taldeko giroa, konpromisoa, esfortzua...egunetik egunera triatleta hobea izan nahi dut".

Urteroko bisita gabonetan egingo du Marianek. Halere, iaz San Pedroetan egon zen: "Asko gozatu nuen".

BIYAK BAT

Lekeitiora irteera

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak txangoa antolatu du irailaren 27an. Oraingoan elkarteko kideak Lekeitio aldera egingo dute bisita.

Irteera goizeko 8:00etan izango da elkartearen egoitza aurrean dagoen autobus geltokitik. Lehenik, Markinako Arretxinagako San Miguel ermita ezagutuko dute eta ostean, Lekeitioko itsasargia bisitatuko dute.

Bazkari ederraz gozatuko dute Lekeitio eta arratsaldean herriko kaleetatik barrena ibiltzeko aukera izango dute.

Izen-emate epea irekia dago dagoeneko. Elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta kide ez direnek, aldiz, 40 euro.

ODOL-EMAILEAK

Abuztuko odol-emateetan kide ugari

Lasarte-Oriako Odol-emaileek abuztuan bi hitzordu izan zituzten Osasun Zentroan, abuztuaren 1a astelehenean eta hilabeteko azken astelehenean, 29an eta Lasarte-Oriako elkarteko lehendakari Joxe Usabiagak azaldu modura, 60 pertsona baino gehiago izan dira. Datu horiek "ez daude gaizki. Ez da ahaztu behar abuztuan jendea oporretara doala".

Hurrengo saioa hilabeteko bezala iraileko azken astelehenean, irailaren 26an, izango dute herriko odol-emaileek. Hitzordua Osasun Zentroan da, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Odol-emailetako lehendakariak herritarrak gonbidatzen ditu odol ematera, "beharra dago eta".

MUGIKORTASUN ASTEA

Bigarren eskuko bizikletak saldu eta erosteko azoka

Mugikortasunaren Europako astea dela eta, ostiralean bigarren eskuko bizikleten azoka izango da Okeno plazan arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

Herritarrek bizikleta edo mugikortasunarekin lotutako objektuak utzi ditzakete azoka hasi baino ordu eta erdi lehenago. Saltzaileek bizikletaren jabe direla egiaztatzen duen agiri bat sinatuko dute. Ez da 300 euro baino gehiagoko salneurrik onartuko.

Azokako teknikariak arduratuko dira objektuez eta salerosketak bideratuko dituzte. Saltzaile zein erosleek NAN aurkeztu beharko dute.

Azokari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi duenak, 943 670 249 telefono zenbakira deitu dezake.

Xumela korua lanean hasiko da

Xumela koruko kideak Xhurrengo astelehenean arratsaldeko 19:30ean hasiko dira lanean.

Koruak iaz 10. urteurrena ospatu zuen eta hainbat ekintza burutu zituen urteurren berezi hori ospatzeko: hitzaldiak, liburu aurkezpenak, antzerkiak... Hainbat bidai ere egin zituzten, hala nola Anoetara edo Baztanera Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruekin batera. Galiziako Solfa abesbatzaren bisita ere izan zuen taldeak.

Aurten ere hainbat hitzordu garrantzitsu ditu Josu Txaperategi 'Txapas'-ek zuzendutako taldeak.

Hilabete honetan, irailaren 24an, Landaberri ikastolako 50. urteurrenako ospakizunetan parte hartuko dute eta Euskararen 9. Maratoian ere izango dira noski.



Urtean zehar hainbat ekintza egiten ditu koruak, hala nola, Santa Eskea.

Euskaraz gozatu

Lan eta lan ibiliko dira, baina besoak zabalik dituzte kide berriei harrera egiteko.

Izan ere, euskal doinuak ikasi eta giro ederrean euskaraz aisiaz gozatu nahi duten herritarrek aukera ederra baitute Xumela koruan.

Koruko kideek azpimarra-

tu dutenez, kantuan jakitea edo maila ona izatea ez da beharrezkoa honen parte izateko. "Ondo pasatzeko gogoia besterik ez dute izan behar".

Horregatik, herritarrak gonbidatzen dituzte Landaberri BHI-n astelehenero 19:30etatik aurrera egiten dituzten entsegetara.

Manuel Lekuona eta Gaztelekuko ikastaroetan izena emateko azken egunak

Irailaren 23an, ostiralean amaitzen da Manuel Lekuona, zein Gaztelekuko udazkeneko ikastaroetan izen-emate epea. Heldu, zein gazteek eskaintza zabala dute.

Manuel Lekuona kultur etxean jarrerren heziketa, olio eta pintura, jostintza, literatura tailerra, arropen konponketa eta moldaketa, akuarela, irriterapia eta sabel dantza ikastaroak eskainiko dira.

Ikastaroak urrian jarriko dira martxan, baina iraupen ezberdinak izango dituzte. Ikasturte osoko ikastaroak dira: jarrerren heziketa, olio eta pintura, jostintza eta literatura tailerra. Besteak berriz, arropen konponketa eta moldaketa, akuarela, risoterapia eta sabel dantza, abenduan amaituko dituzte saioak.

Gaztelekua

Gazteek, berriz, Gitarra, perkusioa, break dance eta shuffle eta dance hall egiteko aukera izango dute.

Ikastaroak 12 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta daude eta ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dira.

Kasu honetan, ikastaro guztiak abendura bitartekoak izango dira asteazken, ostegun edota ostiral arratsaldean.

Izen-ematea

Ohi bezala, herritarrentzat prezio bat eta herrian errolatuta ez daudenentzat beste bat izango da.

Ikastaro hauetan parte hartu edo informazio gehiago nahi duten pertsonak Manuel Lekuona edo Gaztelekura hurbildu behar dira ostirala bitartean.

'Landaberri, mende erdi'

Landaberri ikastolak egitarau anitza aurkeztu du bere mendeurrena ospatzeko

Hitzaldiak, erakusketa, haurrentzako jokoak, kontzertuak, bertsoak, antzerkiak, olinpiadak... Landaberri ikastolaren 50. urteurrenaren ospakizunen barruan, gazte eta ez hain gazteei zuzendutako ekintzak aurki daitezke.

TXINTXARRI

50 urte igaro dira Landaberri ikastolak bere ateak ireki zituenetik. Milaka ikasle izan dira erai-kuntza ezberdinetatik igaro direnak eta egun guraso edo irakasle direnak.

Ibilbide hori ospatu eta lehen pausoak eman zituzten pertsoneri eskerrak emateko hainbat ekimen antolatu dituzte Landaberri ikastolako kideek. Asteazkenean aurkeztu zuten egitaraua.

Landaberri 50. urteurreneko lantaldearen izenean Josu Garmendia, Julen Ollokiegi, Miren Zaldua eta Mariaje Furundarenak eman zuten urteurren berezi honen ospakizunen berri.

Josu Garmendiak eskerrak eman zizkien ikastolako sortzaileei eta batez ere gurasoei egin zuten ahalegin, lan eta apustu pedagogikoarengatik, "gaur egun hori ezinezkoa izango litzateke," azpimarratu zuen.

Era berean, egitaraua osatzen lagundu duten guztiei ere Landaberri ikastolaren esker ona erakutsi zien. Berezi aipatu zituzten, urteurreneko abestiko musika eta hitza idatzi duten Aitor Lasa eta Zigor Iriondo, "Eskoziatik jo eta ke lanean egon den Alazne Amadoz" eta logotipoa egin duen Maria Martin "bere ahalegin eta lan aproposa dela eta".

Lasarte-Oriako Udalarari ere eskerrak eman zieten eta "Euskara Zerbitzuan lanean ari den Iñaki Arrutiri, askotan ez da aipatzen baina azpian eta jo eta ke lanean ibiltzen da".

Beste izen asko eta aipatu beharko zirela azpimarratu zuen Josuk, "horiei ere eskerak eman behar zaie".

Egitaraua

Eskertzen ostean, mende erdi hau ospatzeko irailaren 19tik eta urriaren 1era antolatu dituzten ekintzak azaldu zituzten.

Aurretik esku egitaraua eskuragarri izango dela jakitera eman zuten, baita ospakizunei buruzko informazio guztia eta eguneratua 'Landaberri 50' facebook orrialdean izango dela ere.

Egitarauari dagokionez, ikastolan ikasleekin egingo dituzte hainbat ekintza: mural erakusketak, Porrotxen bihurrikeriak eta ikasle ohi izandako kirolarien bisita.

Baina ikastolatik kanpo ere izango dira herritarrek gozatu ahaliko dituzten saioak.

Landaberri ikastolako historia laburbiltzen duen argazki erakusketa ikusi ahaliko da Antonio Mercero Aretoan. Argazkiez gain, ikasle eta ikasle ohiaren eskulanak ere ikusgai izango dira.

Erakusketak irailaren 19an irekiko ditu ateak arratsaldeko 18:30ean. Ordutegiari dagokionez, astean zehar arratsaldetan 17:30etik 20:00etara bisitatu ahaliko da, larunbatean izan ezik. Lehengoan goiz eta arratsaldean izango da ikusgai, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:30etik 20:00etara. Bigarren berriz, goizez bakarrik egongo dira aretoko ateak irekiak.

Aurretik 17:00etan, ekintza berezia egingo da ikasle eta gurasoekin. Ikastolako



Urteurreneko ospakizunen aurkezpenean ikastolako komunitateko kideak zein egitarauko parte hartzaileak izan ziren.

eraikinen ibilbidea mapeatuko dute. Egitarauaren esku-urriaren atzealdean dagoen mapa oinarri, ikastola egondako eraikin ezberdinak markatuko dituzte eta ibilalditxo bat egingo da trikitilari eta ikasleekin. Ibilbidean zehar abestiak kantatuko dituzte.

Ikasle ohiak ere haien tartetxoa izango dute irailaren 21ean, 19:00etan Abend Kafe-Antzokian egingo den ekitaldian. Pecha Kutxa metodoa erabiliaz, hainbat ikasle ohiaren bizitza eta ibilbide profesionala ezagutuko dute hurbiltzen direnek.

Ostegunean, irailaren 22an, berriz, hitzaldia izango da Villa Mirentxun 18:00etan. Kike Amunarrizek 'Lasarte-Oriako gurasoak: Biba zuek!' solasaldia eskainiko du.

Bertsoak eta haurren eguna

Ostiralean, berriz, 'Bertso berriak Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso-saioa izango da, 22:00etan. Landaberriko ikasle ohiak banaka, binaka edo taldeka Manuel Lekuona Kultur etxeko ohol-tzara igo eta haien esperientzia azalduko dute bertso jarrien bitartez. Bertsoekin tartekatua musika eta antzerkiak izango dira.

Bestalde, irailaren 24an, larunbata ibilaldi berezi bat egingo da Usurbil eta Lasarte-Orian zehar ikastolako eraikinak gogoratuz eta Okendo plazan haurrentzako ekintzak izango dira egun osoan zehar. Goizean, haur jolasak, puzgariak eta Xumelarekin Kantu Jira berezia, arratsaldean berriz, magia ikuskizuna eskainiko du Eriz magoak.

Gauean, 22:00etatik aurrera, gazte eta ez hain gazteek rock kontzertuak gozatuko dute.

Igandean, Euskal Olinpiadek hartuko dute Michelingo Kirol gunea. Ikasle, ikasle ohi eta gurasoen taldeek haien abileziak neurtuko dituzte.

Honekin lotuta, aurkezpenean azaldu zuten, "olinpiadak irakurri eta zerbait oso konpetitiboa izango dela dirudi, baina ongi pasatzeko goiza izango da".

Ostean, Michelinetik Okendora pintxo potea egingo da txarangaren laguntzaz.

Ipuinak eta antzerkia

Ospakizunen bigarren asteari hasiera emateko, irailaren 26an, 18:00etan, Villa Mirentxun, ipuin kontalari saio berezia izango da.

Kontu Kantoiko Bea Egizabal eta Cesar Marcosek ipuin bat eskaini eta ostean, guraso eta ikasle taldeek haiek prestatutako ipuinak kontatuko dituzte. Atzerriko jatorria duten taldeek haien hizkuntzan eskainiko dituzte ipuinak. Asteazkenean eta ostiralean, berriz antzerkiak gozatu ahaliko da Manuel Lekuona kultur etxean. Bi saioak ikasle ohiak osatutako lanak dira, batzuk era profesionalen eta besteak, amateurren.

Honela, irailaren 28an etxeko txiki eta gazteei zuzendutako 'Biolin Magikoa' antzerkia eskainiko da. Musikaren historia eta musikagile

handiak ezagutzeaz gain, 6 eta 12 urte bitarteko gazte- txoek biolinaren zuzeneko musikaz gozatu ahaliko dute.

Irailaren 30ean, berriz, 'Landaberri mende erdi' antzerkia taularatuko da. Ikasle-ohi talde batek osatu du lan eta ikastolaren historiaren errepasso txikia egiten dute honetan.

Bi antzerki lan hauek doakoak dira, baina antolatzaileek agerraldian ohartarazi zuten, txartela beharko da hauek gozatzeko. Txartelak Manuel Lekuonan bertan izango dira eskuragarri saioak hasi baino ordu bete lehenago.

Bazkaria eta grabaketa

Irailaren 1ean, ospakizunei amaiera emateko, bazkari ederra antolatu dute Michelingo pilotalekuan.

Bazkarian ikasle, urte hauetan guztien irakasle, guraso edo ikastola aurrera ateratzen lagundu zuten herritarrak batu nahi dituzte. Izan ere, ostean oroitzapen-ekitaldi berezia prestatu da.

Honetan parte hartzeko txartelak jarriko dira salgai aurki Landaberriko eraikin ezberdinetan.

Baina aurretik, urteurren bereziaren abestiaren dantza grabatuko da Landaberri BHI.

Hau prestatzeko Miren Zalduak azaldu modura, "facebookera bideo tutorial bat igoko da eta koreografia ikasi ahaliko dute grabaketan parte hartu nahi dutenek".

Ostean, bertatik kalejira aterako da eta Udal Musika Eskolako trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte.


Azkenik, Landaberri 50. urteurreneko lantaldeak Landaberri ikastolako ikasle, irakasle eta guraso izandako herritarrei, zein gaur egungoei ekintzetan parte hartzera gonbidatu zituzten.



Landaberriko ikasleak 1978an egindako irteera bateko irudian.

A. E.

Euskararen 9. Maratoia



Irten armairutik! (II)

Erronka Euskararen Maratoia hasi aurretik



Urriaren 24tik abenduaren 3ra bitarte, dagokigun astean euskaraz biziko gara.

Horrek esan nahi du, ingurunean -etxean, lagunartean, lantokian, kalean...- ditugun ezagunekin euskaraz egingo dugula, baldin eta ulertzen badute. Zazpi egun hauetan, beti eta erabat euskaraz arituko gara, nahiz eta gure solaskideak erdaraz erantzun.

Ezezagunekin hitz egiterakoan, lehen hitza euskaraz egingo dugu: ulertzen badigute, euskaraz jarraituko dugu, nahiz eta haiek guri erdaraz erantzun. Euskararen 9. Maratoiaren aurretik eman beharko dugu izena. Dagokigun astea iritsi aurretik Ahobiziak elkartu egingo gara, erronka ahalik eta era erosoenean burutzeko aholku batzuk jaso eta zalantzak argitzeko.

Euskaraz ulertzen dugu eta urriaren 24tik abenduaren 3ra bitarte, Ahobiziek erronka naturaltasunez burutu dezaten ezinbestekoak gara.

Jarrera positiboa dugu, ongi hartzen dugu jendeak guri euskaraz hitz egitea. Ulertzen dugunez, euskaraz dakienari gurekin euskaraz aritzeko gonbitea luzatzen diogu eta lagundu egiten diogu "armairutik ateratzen".

Ahobizi-Belarriprest egoerak azaltzeko, bideotutorial polit bat osatu dugu: 40egun.euskararenmaratoia.eus helbidean ikusi dezakezu.

Ez utzi azken ordurako izen-ematea!!

Informazioa: 40egun.euskararenmaratoia.eus, Ttakun Kultur Elkarte (943 37 14 48) edo Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

Erronkan zehar

Belarriprest

Maratoiaren asteburuan txapa bat jaso beharko dugu, plazan honetarako ezarriko den gunean. Txapa hori soinean eramango dugu erronkak irauten duen 6 asteetan.

Ahobizi

Maratoia hasi baino lehen jakinaraziko zaigu zein aste dagokigun Ahobizi bakoitzari. Txanda hasi aurretik elkartzen garenean dagokigun txapa emango zaigu. Eta kontutan hartu Ahobiziak Belarriprest garelako gainontzeko 5 asteetan!



Irakurle txokoak urrian hasiko du ikasturte berria

Irakurle txokoak beste ikasturte bati ekingo dio urriaren 18an. Euskarazko literatura ardatz duen taldeak idazleak ekarriko ditu berriz ere irakurleekin euren lanez hitz egitera.

Dagoeneko taldeak erabakita dauka ikasturte honetako irakurgaien zerrenda. Horrela izanda, zerrenda zabaldu nahi izan dute herritarrek denbora izan dezaten haiek irakurri eta saioetara gerturatzeko.

Taldearen gidari lanetan arituko da berriz ere Uxue Alberdi izan ere, honen amatasun baja ordezkatu baitzuen Danele Sarriugarte idazleak aurreko ikasturtean.

Mota guztietako lanak

Irakurgaien artean eleberriez gain, saiakerak zein poema liburuak ere hautatu dira.

Horrela izanda, lehenengo saioan, urriaren 18an, Ramon Saizarbitoriaren 'Lili eta biok' eleberria aztertuko da.

Honetan Lili 15 urteko neskatoa eta Faustino Iturbe psikologo ohi eta idazlearen istorioa kontatzen da.

Azaroaren 15ean berriz, Alaine Agirreren 'X hil da'

lanak hartuko du protagonismoa. Idazlearen esanetan "maitea galtzearen beldurrari buruzko nobela labur bat da".

Kasu honetan, idazlea etorriko da irakurle txokora herritarren inpresioak jaso eta solasaldian parte hartzera.

Abenduaren 20ean izango da hirugarren hitzordua Harkaitz Cano herritarren 'Beti oporretan' lana ardatz hartuta. Canok 14 ipuin bildu ditu honetan.

Urtarrilaren 17an 'Mundua betetzen zenuten' Tere Irastortzarekin lantzeko aukera izango da. Poema liburuak heriotza du helduleku.

Otsailaren 21ean Angela Davis-en 'Emakumea, arraza, klasea' aztertuko dute. Aktibista estatubatuarren saiakera honetan emakume beltz eta esklaboen bizitza islatzen da.

Martxoaren 21ean berriz idazlearekin egoteko aukera izango dute irakurle txokora gerturatzen direnak. Joxe Azurmendirekin 'Barkamena, kondena, Tortura' saiakeraz hitz egingo dute.

Apirilaren 18an Itxaro Bordaren lehenengo eleberria



Orain arte Kultur Etxea izan da Txokoaren bilgune, aurten zehazteke dago baina garaiz adieraziko dutela agindu dute taldeak.

izan zen 'Basilika' aztertuko da.

Ikasturteko azken saioa maiatzaren 16an izango da. Honetan Oier Gillanekin 'Mr señora' lana izango dute hizpide.

Zazpi antzezlanek osatzen dute liburua eta testuetan oinarrituta, 'Mr. Señora teatro-errezitaldia' antzezlan osatu eta taularatu du idazleak.

Irakurle Txokoak hilabeteko hirugarren asteartean mantenduko du hitzordua 18:30ean.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

TXIRRINDULARITZA.

Buruntzazpiri agur, podiumeko maila gorenetik

Mendiko Kriteriuma irabazita itxi du denboraldia Iñigo Altunak; datorrenean, afizionatua izango da

Buruntzazpiko maillot berde-urdina zazpi urtez jantzi ostean, taldeari agur esan dio Iñigo Altunak. Modu ezin hobean, gainera. Mendiko Kriteriuma irabazi zuen irailaren 11n, erakustaldia emanda: hirutik bi etapa irabazi, mendian nagusi izan eta sailkapen orokorra poltsikoratuta. Ezin gehiago eskatu.

IÑIGO GONZALEZ

Eskeerak eman nahi dizkiot taldeari, urteotan guztietan nigan izandako konfiantzazatik. Ea hemendik urte batzuetara niri emandakoa bueltatzerik diodan". Iñigo Altuna txirrindulari gazteak esker hitzak besterik ez ditu Buruntzazpi taldearentzat.

Zazpi urteren ostean, txirrindulari eta taldearen bideak banatu egingo dira, junior aroa amaitu eta afizionatua izango delako datorren urtean. Amaiera, agurra, nekez izan zitekeen hobea: Mendiko Kriteriuma izan zen maillot horrekin jokatu zuen azken proba, eta irabazi egin zuen.

Erakustaldia emanez, gainera: sailkapen orokorrean 87 puntu

bildu zituen, sailkapen orokorra, mendia eta hirutik bi etapa irabazita. Podiuma Luis Garikanok eta Unai Iribarrek osatu zuten; 67 eta 57 puntu erdietsi zituzten, hurrenez hurren.

Amaiera, sasoi betean

Foman iritsi zen Altuna Oñati eta Segura artean jokatuako Kriteriumera: afizionatuekin konpetitu du zenbait probatan, maila ona emanez, eta Euskal Herriko selezioarekin Kantabrian aritu zen, Espainiako txapelketan, nahiz eta, janaria egoera txarrean egoteagatik, euskal taldea osatu zuten kideek euren maila onena erakutsi ezin izan.

Amaierara sasoi betean iritsita ere, txirrindulari gazteak

dio "luzea" egiten dela sasoi, otsail-martxotik dabil-tzalako konpetitzen, eta amaitzeko gogoia bazeukala. "Hori bai, kontziente nintzen nire taldearekin jokatu nuen azken lasterketa zela, eta ahalik eta ongien bukatu nahi nuen", aipatzen du.

Amaitu berri den denboraldia positiboki baloratzen du Altunak: "Lau proba irabazi ditut eta beste hirutan igo naiz podiumera. Halere, are hobea izan zitekeela uste dut, aurten izan ditudan erorikoengatik izan ez balitz. Pena ematen dit horrek".

Afizionatu mailara jauzia

Datorren denboraldian Jira Bira Track talde zarautzarrean ariko da Altuna. "Urtariletik neukan lotuta hurrengo urterako taldea, eta horrek asko lasaitzen zaitu, jubencil kategoriako azkeneko urtean txirrindulariok gure onena eman nahi izaten dugulako, taldeen arreta erakartzeko".

Txirrindulari gazteak kontatu digunez, datorren urteetako planifikazioa honezkero diseinatu dute. Altunaren helburua da urteaz urte "kilometro eta entrenamendu-saio gehiago" egitea, ikasten eta formatzen jarraitzea, hemendik hiruzpalau urtera "bizikletan %100ean zentratzeko".

Batxilergoa bukatuta, Ingeniaritza Mekanikoa ikasten ari da Altuna, Mondragon Unibertsitatean. "Praktika asko egingo ditut, eta horrek aukera emango dit bizikletan era-



Mendiko Kriteriuma irabazi du Iñigo Altunak (erdian).

GTXE.ORG



Argazkiko ospakizuna lau aldiz errepikatu du aurten Iñigo Altunak.

bat zentratzeko, tarte horretan ikasketak apur bat alde batera utzita". Egunen batean pelotoi profesionaleko kide izatea du amets lasarteoriatar gazteak. "Horregatik borrokatuko dut; gero, denborak esango du noraino iristen naizen. Hala ere, ikusteak gertuko txirrindulari batzuek helburua bete dutela, indarra ematen dizu".

Profesionalen artean badu erreferente eta ispilu bat Altunak: Haimar Zubeldia usurbildarra. "Gertuko txirrindularia da, etxekoa, profesionaletan ibilbide zabala daukana; noiz edo noiz entrenatu izan du gurekin, gainera. Bera da nire erreferente garbiena, zalan-tzarik gabe".

Ramon Unanue gogoan

Erreferenteez hitz egiten hasita, Altunaren lehenengo prestatzaile izandako Ramon Unanue ezin ahaztu. "Berak eman zidan aukera Buruntzazpin sartzeko, bera izan zen nigan konfiantza erakutsi zuen lehenengo pertsona. Proba bat irabazten dudak bakoitzean, ospakizuna beti da berdina: bi behatz zerura, Ramoni eskainiz".

11-12 urterekin hasi zen Buruntzazpin. Bizikletan, bi urte lehenago. "Hasieran zaletasun gisa hartzen nuen, baina eboluzionatzen joan naiz, orain naizena izatera iritsi arte; aurtengo denboraldia izan da orain arteko onena".

PILOTA.

Igo mailan debuta eta garaipena

Gipuzkoako 1go mailako ibilbidea ederki hasi dute Intza KEko pilotariek. Ostegun gauean jokatu zuten Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak, Tolosako Beotibar pilotalekuan, Aurrera Saiaz 2 taldearen aurka. 22-14 gailenduta, debuteko partiduan garaipena lortu zuten herritarrek. Etxegarai eta Beloki gazteak izan zituzten aurkari.

Partidua hasi eta berehala egin zuten ihes markagailuan herritarrek; 17-5 irabaztera iritsi ziren. Ondoren, abantaila ongi kudeatuta, lehenengo bi puntuak zakuratu zituzten.

3. mailako seniorrek Oñatin jokatu zuten ostiralean, Aloña Mendiren aurka; Aritz



Intza KEko seniorrek irabaziz egin dute debuta Igo mailan.

Urkia eta Aritz Solanok osatutako bikotea 7-22 nagusitu zen. Bikain hasi dira, beraz.

Arteaga II.a ere ederki

Axier Arteaga pilotari gazteak ere kantxaz kantxa dabil azkenaldian. Iragan ostegu-

nean, Imazekin bikote eginez, Arretxe II.a eta Iturriaga hartu zituzten mendean, 13-22.

Ostiralean berriz, Galda-kaon jokatu zuen, Lasoren aurka, lau t'erdian. Bolada onari segida eman zion, 22-16 irabazita.

LABURRAK.

XXI. 'Lasarte-Oria Bai!' kros herrikoian izena emateko epea zabalik dago

Pixkanaka-pixkanaka, gerturatzen ari da gure herriko kirol hitzordu garrantzitsuenetako bat: 'Lasarte-Oria Bai!' kros herrikoia. Aurtengoa XXI. edizioa izango da; urriaren 30ean jokatu da, igandez. Lasterketaren antolatzaile Ostadar SKTk jakinarazi duenez, proban korrika egin nahi dutenek aukera daukate izena emateko. Horretarako, www.sailkapenak.com web orrialdean sartu beharko dute.

Buruntzaldea IKTko kideak, Legazpin ospatutako Gipuzkoako Igeriketa Galan

2015/2016 denboraldiko itxiera-gala ospatu zuen Gipuzkoako Igeriketa Federazioak larunbatean. Legazpiko Latxartegi zine-man elkartu ziren klub desberdinetako igerilari, entrenatzaile eta ordezkariek. Tartean, Buruntzaldea IKTkoak.

Hainbat sari jaso zituzten Buruntzaldea IKTko igerilariak ekitaldi horretan: Ainhoa eta Leire Martin ahizpek, Unai G. Somovillak, Iñigo Ibarburuk eta B kategoriako gizonen taldeak. Taldea hasi da dagoeneko sasoi berria prestatzen, iragan urtekoa baino are hobea izan dadin.

Agenda

Asteartea-Ostirala, Lasarte-Oria



Mugikortasun jasangarriaren alde

Mugikortasun Astea dela eta hainbat ekimen antolatu ditu astean zehar Lasarte-Oriako Udalak. Asteartean eta azteazkenean, bizikleta ikastaroak izango dira ikastetxeetan, ostegunean 'Muittu Manttangorri' autobusak doako zerbitzua eskainiko du eta ostiralean honako egitarau hau eramango da aurrera:

KALE NAGUSIA

16:30etik 19:30era, 'Kalea Jolaserako' ekimena izango da. Bizikleta jolasak, segway zirkuitua, herri kirolak... izango dira txikientzat.

OKENDO PLAZA

16:30ean eta 17:00etan, bizikleta martxak izango dira. 16:30etik 19:30era, bizikleten bigarren eskuko azoka.

11:00etatik 13:00etara. Gaur irekiera, 18:30ean.

50 urte hauetako argazki eta ikasleen eskulanak bildu dituzte erakusketa batean.

Stock Azoka

ATERPEAKO DENDETAN

Ostirala 23

Stock azoka izango da hainbat dendetan. Pagotxak aurkitzeko aukera eder-rra.



Lasarte-Oria

Landaberri 50. Urteurrena

ANDRE JOAKINA ENEA

Gaur, 17:00etan

Ikastolako eraikinen ibilbidea mapeatu eta kalejira.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Asteazkena, 19:00etan

Hainbat ikasle ohiren bizitza eta ibilbide profesionala ezagutzeko aukera izango da.

VILLA MIRENTXU

Osteguna, 18:00etan

Kike Amunarriz soziolinguista eta telebista aurkezlearen 'Lasarte-Oriako gurasoak: Biba zuek!' hitzaldia.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 23, 22:00etan

'Bertso berriak Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso-saioa izango da. Bertsoekin tartekatua musika eta antzerkiak izango dira.

LASARTE-ORIA ETA USURBIL

Larunbata 24, 09:00etan

Ikastolako eraikinak eta historia gogoratzuz ibilaldi komentatua egingo da. Andre Joakina Enean hasiko da.

OKENDO PLAZA

Larunbata 24, 10:30ean

Haur jolas eta puzgarriak.

OKENDO PLAZA

Larunbata 24, 12:30ean

Kantu Jira Txikia Xumela koruarekin.

OKENDO PLAZA

Larunbata 24, 17:00etan

Magia ikuskizuna Eriz magoaren eskutik.

OKENDO PLAZA

Larunbata 24, 22:00etan

Rock Kontzertua.

MICHELINGO KIROL GUNEA

Igandea 25, 10:00etan

Ikasturte ezberdinetako taldeen arteko Euskal Olinpiadak.

ERDIGUNEA

Igandea 25, ondoren

Poteoa txarangarekin.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Gaurtik urriaren 1era. Asteazkenean zehar, 17:30etik 20:00etara. Larunbatetan,

Usurbil

Jauzi!-Antzerki Egunak

TXIRIBOGA, TXIRRISTRRA, IRATXO-ANTXETA

AURREA ETA ARTZABAL TABERNETAN

Osteguna, 19:00etan

Kale antzerki pieza txikiak eskainiko dira tabernetan eta kalejira musikatua izango da batetik bestera.

Bizipozaren jaia

FRONTOIA, DEMA PLAZA

ETA MIKEL LABOA PLAZA

Igandea 25, 10:00etatik 18:00etara

Bizipoza Elkarrekin eta Usurbilgo hainbat eragilek Bizipozaren Jaia antolatu dute. Bizipoza Elkarrekin osatzen duten elkarrekin topaketa, 'Amalur' ikuskizuna, jolasak, antzerkiak, puzgarriak, tailerrak, musika... denetarik izango da.

Herritarren txokoa

Udako Txoko eta kanpaldietako arropa

Udako Txoko edo Donemiliaga eta Albeniz udalekuen ostean jasotako arropa Ttakuneko bulegoan eskuragarri dago.

Jertseak, txaketak, kamisetak, amantalak, galtzak... irailaren 12tik 23ra jaso ahalko dira bulegoko ordutegian.

Neguko ordutegia kiroldegian

Kiroldegiko guneak astelehenerdik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandeetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenerdik ostiralera arratsaldez egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahal dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Zuen oharrak jarri, keak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48
txintxarri@txintxarri.eus

Eskutitza

Mercadonak bere ingurumen-konpromisoaren irudia arriskuan jarri du

Mercadona Belartzako harrobian kokatuko deia baieztatuta, NATURKONek publikoki jakinarazi nahi die enpresa horretako arduradunei gune hori garatzeko makina bat ilegaltasun eta irregulartasun egin direla, gaur egun argitu gabe dira.

Belartzako harrobiko obra udalaren baimenik gabe hasteaz gain, legezkoa den lizitazio lehiaketa publikorik egin gabe ere hasi zen, hartara beste enpresei exekuziora garaiz aurkeztea galaraziz. Hori gutxi ez, eta proiektuak ez zuen ingurumenaren gaineko inpaktu-ebaluaketarik, hau legearen arabera eskatu behar izan zitzaioela ere. Obrak 100.000 tona baino gehiagoko harri-hondakindegia berri bat sortarazi du Belartza ondoko ingurune naturalean eta hondakin horien lekualdaketan enpresak mendi-pistak legez kontra ireki ditu, erreka baten erriberako landaredia txikitu du eta ur-ibilguan bertan ere kalteak eragin ditu. Aipatutakoaz gainera berez babestuta egon beharko lukeen

hariztian eragina izan du hainbat zuhaitz behera bota direlarik eta paisai inpaktu nabarmena sortuta.

Uraren Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzak enpresari ezarritako ingurumen-betebeharrei muzin eginda egin dira obrak, hori guztia Donostia-ko Udalaren utzikeriak lagunduta jakina.

Mercadonak, bere burua jasangarritasunarekin konprometituta aitortzen duen enpresa batek, bere ingurumen-memorian 2014. urtean ingurumenaren babesean 25 milioi euro inbestitu duela dio eta ustelkeriaren aurkako baloreen, giza eskubideen, lan-arauen eta ingurumenaren defentsarako sortutako Itun Mundialeko bazkidea dela baieztatzen du. Oso kontraesankorra litzateke enpresa hori behin eta berriz ingurumen-legeak urratu diren lekuan ezartzea, txikizioa eragin duten leku horretan bertan eta bere instalakuntzen metro gutxitara obrak eragindako hondakindegia ilegal batekin bizitzen. Ez litzateke koherentea bere burua ingurumen-konpromi-

soa duen enpresatzat duen horrek, txikizio basati baten aztarna utzi duen gunean ezartzea, hain zuzen ere ekologistek nahiz bizilagunek makina bat irregulartasun salatu duten lekuan. Eta dudarik gabe epaitegian bukatuko duen auzi batean sarturik.

NATURKON (Gipuzkoako Talde Naturazale eta Kontserbazionistak)



Askotariko kale animazio ekintzak ikusi ahal izan ziren asteburu osoan zehar.

Artisautza eta ikuskizuna

Erdi Aroko azoka koloretsuan bihurtu zen herria

Jana, edana, artisau produktuak eta kale ikuskizuna. Denetarik izan da asteburuan zehar, Lasarte-Orian izan zen I. Xakobeko Azokan. Ostiral arratsaldetik igande gauera, ekintza ugariz gozatzeko aukera atsegina izan zen.

Done Jakue bidean oinarritutako Erdi Aroko azoka ikusgarri eta erraldoi batean bihurtu zen, asteburu osoan zehar, Lasarte-Oria. Ostiralean, arratsaldeko 17:00etan ireki zituen ateak, aurrenengoz, I. Xakobeko Azokak. Koloretako apaingarriak kaleetan zintzilik, 90 postu baino gehiagok bete zituzten herriko Kale Nagusia, Elizatze plaza eta Okendo Plaza. Hiru egun

horietan zehar, ekintza ugari izan ziren azokan; goizetik gauera bitarte, kaleak alaitzeko kalejirak, euskal mitologiari buruzko erakusketa, kale animazioa eta ipuin-kontalariak, besteak beste. Larunbat eta igandean, eguraldiak egitarauari zailtasunak jarri bazizkion ere, egun osoko egitarau zabala izan zen merkatuan. Larunbatean, esaterako, egunari ongi etorria emateko, artisauen kalejira

izan zen lehenengo. Ondoren, haur jolasak, antzertokiko ekintzak, txontxongiloak eta suaz baliatutako kale-ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten azokako postuetara gerturatu ziren herritarrek. Igandean ere, izan zen non gozatua. 'Orkestra gizona' eta 'Cia la que tu me haces' antzerki emanaldiek, taillerrek, doinu zeltikoetan oinarritutako musika kalejirek eta beste hainbat ekitaldik eman zioten agurra aurtengo azokari. Azokako postuetan, askotariko produktuak erosi, dastatu eta ikus zitezkeen; bitxiak, janaria, edariak, jolasak, eta xaboiak, besteak beste.



Herritarrak izutu nahian ibili ziren kale animazioan parte hartutako pertsoniak.



Etxeko txikienek adi-adi entzun zioten Eulali ipuin-kontalariari



Artisauak zuzenean aritu ziren euren produktuak nola landu jendeari erakusten.



Udaletxe azpiko arkupeetan, euskal mitologuako zenbait pertsonaia ikus zitezkeen.